

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
84 zenb.
2024ko abendua



**Bizitza ekologiko eta
jasangarri baterako
alternatiba**



Egoitz Luisa Urkola
Anoetako alkatea

Urte amaieran gauden honetan atzera begiratzeko aukera baliatuko dut, 2023ko ekainean hartutako gobernu arduraren gainean balantzetxoa egiteko.

Lehenik eta behin, esan beharra dut urte eta erdi hau uste baino azkarrago pasatu zaidala. Erritmo bizian gabiltza lanean jo eta su, eta hala ere, kontraesankorra badirudi ere, nahi baino mantoago doa udalaren inguruan bizi dudana. Asko izan dira aurrera eramatea lortu ditugun ekimen eta proiektuak, asko dira esku artean ditugunak, eta asko dira ere identifikatuta izan arren oraindik erantzutera iristen ez garenak.

Anoeta ekimen handiko herria da, askotariko beharrak dituen herria da eta askotarikoak dira herritarrengandik jasotzen ditugun eskaerak ere. Esan beharra dut ere ulertzen ditudala askotan herritarren kexa eta haserreak, oro har errespetuz eta zentzuz planteatuak izan zaizkidalako herritarren partetik. Ulertzen dut ere herritar bakoitzak bere gertueneko eta gehien eragiten dien arazoei ematen diela garrantzia, baina herri osoarekiko dudan arduratik, premiak eta lehenetasunak markatzea dagokit.

Horrek ez du esan nahi eskaerak, gaiak eta auzoak albo batera uzten ditugunik ez eta garrantzirik ematen ez diegunik; baina ditugun baliabideak ere mugatuak dira udalean eta ahalik eta egokien erantzuten saiatzen ari gara. Nik ere nahiago nuke herritar guztien kexak eta beharrak aldi berean

konpontzeko baliabideak bagenu, baina gaur gaurkoz ez da horrela eta horretan ere lanean ari garen arren, dauzkagun baliabideak ahalik eta egokien erabiltzen saiatzen ari naiz eta pixkanaka bada ere guztietara iristea da helburua.

Ezagutzen nauzuenok badakizue gauzak ondo egiteko ohitura eta grina dudala, presagatik ez naizela arinkeriatan ibiliko, eta horretan oinarritzen da nire udaleko jarduna, gertutasunean, arduran eta konpromisoan.

Eta hori guztia ez zen posible izango inguruan, oso hurbil, dudan taldea izango ez banu. Ez dira debaldeko hitzak, oso babestua sentitzen naiz kide ditudan zinegotziez, ardurak banatuta ditugu, konpromiso eta ilusioa dute, eta horrek indarra eman du udalgintzan jarraitzeko, herrigintzan aritzeko. Elkarrekin bagoaz.

Ez dut ahaztu nahi ere udal langileen jarduera, bulegoan izan ala kale gorrian, norbera bere aletxoa jartzen ari dela ikusten dut egunero, beti laguntzeko prest, beti pronto. Arazoak arazo, gabeziak gabezi, beraien lan isil eta askotan ikusezin den hori eskertu nahi diet.

Atzera begira jartzen gara asko delako egindakoa eta horretan zuen ekarpena ere ezinbestekoa izan delako. Anoeta denon artean egin dugulako, egiten ari garelako eta egingo dugulako, aurrera egin nahi dugulako. Anoeta astintzen jarraituko dugu biziago eta bizigarriago izan dadin, elkartasunean eta eskuzabaltasunean oinarrituta. Bide horretan zuekin eskuz esku lanean jarraituko dut.

Kiroldegiko instalazioa



Energia burujabetzaren bidean, kiroldegiko instalazio fotovoltaikoa hobetu da

Anoetako Udala energia kontsumoarekin eta honek sortzen dituen albo-kalteekin arduratuta, energia burujabetza lortzeko aurrerapausoak eman ditu. Kontsumoari aurre egiteko lehen pausua, energiaren kontsumoan murriztea izan da, bestetik, energiaren beharrari erantzuteko, eta, Anoetan ahalik eta energia berriztagarri gehien sortzeko, Kiroldegiko instalazio fotovoltaikoa handitu da.

Kiroldegiko instalazioa handitzeko plaka bat gehiago jarri da. Plaka honek, energia berriztagarria sortzeko, eta, kiroldegiak duen kontsumo energetiko handiari aurre egiteko, lehendik zegoen 17kwp ko plaka fotovoltaiko instalazioari 72,96kwp ko beste bat gehitu zaio.

Orain arte, kiroldegiko kontsumoaren azterketaren baitan, kiroldegiko urteko kontsumo osoa 60.226kWh koa izan da, eta urteko energiaren kostu osoa, 15.000 € koa gutxi gorabehera. Instalazio berri honekin urtean sortuko den energia 74.032 kWh izango da eta honi esker, egungo kostuarekiko urtean 6.754,64 € aurreztuko dira gutxi gorabehera.

Kiroldegiko instalazio fotovoltaikoarekin sortzen den energiaren %39 autokontsumituko da eta %61a sarera txertatuko da konpentsazio ekonomiko baten truke, energia sortzen den garaian ez dagoelako erabiltzeko beharrik. Bestetik, instalazio honek kiroldegiko energia kontsumoaren % 48a sortuko du eta % 52 saretik erosi beharko da, energia behar den momentuan ez duelako instalazioak sortzen.

Inbertsio honen kostua orotara 52.921,13 € koa izan da, eta aurreikuspenen arabera inbertsioaren itzulera 8 urtekoa izango da.

Gainera, instalazioa martxan jartzean hainbat emisioen igorpena aurreztuko da atmosferan; 26,372 CO2 tona/urte eta 65,91 SO2 kg/urte.

Auzokonposta



Anoetako Udalaren auzokonposta eta autokonposta proiektuan 284 etxebizitzek eman dute izena

Hondakinen kudeaketak eragin zuzena du gaur egun gainean dugun eta dagoeneko ondorioak pairatzen ari garen larrialdi klimatikoan. Honen jakitun izanik eta norabide aldaketa baten beharra garbi izanik, atez ateko sistemari ekin zion Anoetako Udalak eta geroztik, birziklapen tasa hobetzen joan da urtez urte, 2023ko batez bestekoa %75etik gorako izatera iritsi arte.

Anoetako Udalaren apustuan beste pausu bat eman zen 2014. urtean. Auzokonposta guneak jarri ziren eta orain arte funtzionamenduan izan dira etenik gabe, egun, herrian 9 auzokonpostagune zabaldua izatera iritsiz. Gaur gaurkoz, auzokonposta Anoetako Udalaren hondakin sistemaren erdigunean kokatu nahi da, hondakinak ahalik eta gertuen eta ahalik eta era naturalenean kudeatzea garrantzitsua delako.

Hondakinen inguruko legeen bilakaera ikusita, non kontrol eta jarraipen mekanismoak indartzera bultzatzen dituen udalak, Anoetako auzokonpostaguneak sarraila elektroniko bidez ixteko hautua egin du Anoetako Udalak.

Erabaki honi tiraka auzokonposta eta autokonposta proiektuetan izen emateko epea zabaldu zuen Udalak; auzokonpostan 263 etxebizitza apuntatu dira eta autokonpostan 21, herriko etxebizitzek %27tik gora alegia.

Hondakin organikoa ondo sailkatzeak gaikako bilketan duen garrantzia ikusita, eta, sistema honen bidez organikoa kudeatzeak hondakinen garraio eta kudeaketa gastuan duen eragina ikusita, auzokonposta eta autokonposta bidez hondakin organikoa kudeatzen dutenek %10eko hoberia izango dute beraien hondakin tasan 2025. urtean.

Honez gain, Anoetako Udalak lanean jarraituko du sentsibilizazio lanekin herritarrak kontzientziatzen eta arlo honetan herriak dituen beharrei erantzuten.

Euskara plana

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu du udalak

Plan Estrategikoaren prestaketa prozesua 2024ko urtarrean hasi zen, Euskara Zerbitzuaren eta UEMaren gidaritzapean. Udaleko langile eta politikariak inplikatu dira prozesuan

Anoetako Udalak 2023-2027ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu berri du, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak barne dituela. Dokumentua jada eskuragarri dago Udalaren webgunean.

Egoeraren diagnostikoa egin ondoren, Plan Estrategikoaren proposamena zirriboratu eta langileei aurkeztu zitzaion, haien ekarpenak jasotzeko eta zalantzak argitzeko.

Plan Estrategikoaren helburu nagusiak

Plan Estrategikoaren helburu nagusiak hauek dira: alde batetik, euskara eguneroko kudeaketa orokorrean txertatzea; eta bestetik, euskararen normalizazioan urrats kualitatiboak egitea.

Alde batetik, lortu nahi duguna da langile guztiek ulertzea Plan Estrategikoa zer den eta zertarako den, hizkuntza-irizpideak ezagutaraztea eta langile batzuk inertziaz dituzten jokabide linguistikoak kontzientziara ekartzea. Langileek laguntza izango dute, behar den guztietan, hizkuntza-irizpide zehatzetan sakontzeko eta haien lana euskaraz burutzeko behar duten edozertarako.

Udalak bertako langileei eta herritarrei adierazi nahi die euskara erabili nahi duela herritarrekiko harremanetan eta barruko jardunean.

Datozen hilabete eta urteetan, besteak beste, arlo hauek jorratzea aurreikusten da:

- Kontratazio publikoetan, dirulaguntzetan eta baimenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta jarraipena egiteko sistema bat sortzea.
- Euskararen zeharkakotasuna lantzea, udaleko sail guztietako eguneroko kudeaketan txertatu behar delako euskara. Planari jarraipena egiteko modua sail guztiekin adostuko da.

- Udalak aurrera eramaten dituen politikek zein eragin linguistiko duen herrian ebaluatzea: adibidez, hirigintza alorreko proiektuen eragin linguistikoa.

- Hizkuntza-irizpideetan sakontzea: Plan Estrategikoaren baitan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ere badaude eta horietan zehazten da Udalak zer-nola jokatu duen hainbat arlotan hizkuntzari dagokionez. Langileek eta hautetsiek irizpide horiek barneratu beharko dituzte. Adibide batzuk jartzearren:

- o Euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan, eta idatziz ele bietan egiteko beharra dagoenean ere euskarazkoa nabarmenduko da.

- o Udal ordezkariak euskararen aldeko jarrera proaktiboa izango dute.

- o Udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izango dute eta euskara izango da haien lan hizkuntza.

- o Udal-langilea herritarrekin aurrez aurre edo telefonoz ari denean, lehenengo hitza euskaraz egingo du. Geroko elkarrizketa ere euskaraz izango da, herritarrek gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

- Anoetako Udalak antolatzen dituen jendaurreko saio, ekitaldi, bilera eta tailerretan hizkuntzak egoki kudeatzeko moduak aztertzea, udal-sailen lankidetzarekin.

- Teknologia berriak erabiliz aurrerapausoak ematea: Anoetako Udalak oro har euskaraz funtzionatzen duen arren, uste du hizkuntzaren teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatu behar dituela euskaraz gehiago eta hobeto egiteko.

Anoetako Udalak euskararen normalizazioarekin duen konpromisoa berretsi nahi du, eta langileen laguntza eskertzen du prozesu garrantzitsu honetan. Era berean, herritarrei gonbidapena egiten die euskararen sustapenean Udalaren bidelagun izan daitezen.

Erabilera Planaren dokumentu osoa udaleko webgunean egongo da ikusgai.

Ordenantza fiskalak

Anoetako Udalak 2025erako ordenantza fiskalak onartu ditu



Ordenantza fiskala tokiko arautegi-araua da, eta hiru eginkizun ditu: udalerriko zergak ezartzea eta ezabatzea erabakitzea, udal-zergak garatzea eta zerga horiek kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko araubide orokorra ezartzea.

Anoetako Udalak urriaren 29ko osoko bilkuran 2025erako Ordenantza Fiskalak onartu zituen, %2,6ko eguneraketa orokorrearekin. Hala ere, 2025erako onartu diren ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa esanguratsu eman dira.

Hondakinen kudeaketa hobea

2025erako tasetan nabarmendu diren berritasunen artean, hondakinen kudeaketa-tasari eragiten dio. Zerbitzuaren kostua estali ahal izateko, 7/2022 Estatuko Legeak eskatzen duen bezala hondakina sortzen dutenena izango da ardura, hortaz, ordainketa sistema honen arabera, udalarentzat ezingo da hondakinak kudeatzea ekonomikoki defizitarioa izan.

Hori lortze bidean, batetik, hondakinen kudeaketaren gastua murriztu beharko da hondakin sorrera gutxitu eta birziklapen datuak igoaz. Bitartean, tasak pixkanaka igo beharko dira helburu hori lortzeko.

Hau da egun daukagun defizita:

EREMUA	KOSTU DEFINITIBOA	TASAK	DEFIZITA €	DEFIZITA %
Herrigunea	45.432,18 €	34.639,87 €	10.792,31 €	31,16
Industriagunea	16.400,38 €	8.835,13 €	7.565,25 €	85,63

Anoetako datuak ikusita herriguneko hondakinen bilketarako ezarritako tasa %20 igotzea onartu da. Industriaguneko aldiz %50.

Igoera honekin, defizita murrizteko bidean jarriko ginateke. Gainera, hondakinen gastuak murrizteko neurriak hartu direnez; auzokonposta bultzatzea eta organikoaren bilketa herrigunean astean 2 egunetik egun batera gutxitzea esaterako, Anoetako defizita desagertzea aurreikusten da.

Alabaina, auzokonpostan edo autokonpostan izena eman eta, sarraila elektronikoaren bidez bere erabilera ziurtatzen duten erabiltzaileek %10eko hobaria izango dute zaborraren tasan.

Industriagunean berriz, Tolosaldeko Hondakin mankomunitatearekin batera sentsibilizazio kanpaina burutu beharko da gaikako bilketa datuak handitu eta horrekin gastua jaisteko.

Kiroldegiko tasen eguneraketa

Anoetako udalarentzat oso garrantzitsua da aspektu guztietan kiroldegia aktibitatea. Ariketa fisikoaren bidez ohitura osasuntsuak sustatzeak herritarren osasunean onurak ekartzen baititu. Gainera, ohitura osasuntsu horiek elkarbanatzea eta beste herritarrekin batera egiteak onura bikoitza ekartzen du; sozializatzea. Hain zuzen, harremanak egitea ere osasuna baita.

Egun, kiroldegia zerbitzua oso defizitarioa da. Soilik harrera zerbitzua kontutan hartuta, alegia, energia kontsumoa, instalazioen garbiketa eta mantenua, materiala, eta bestelako hainbat gastu kontuan izan gabe, 40.832, 26 € ko defizita sortzen du.

Horregatik, hainbat eguneraketa burutu dira kiroldegiko tasetan:

Kiroldegiko abonatuaren tarifak:

TALDEA	ADINA	URTEKOA	HILABETEKOA
Haurrak	0-15 urte	30 €	6 €
Gazteak	16-24 urte	96 €	12 €
Helduak	24-64 urte	144 €	16 €
Adinekoak	65tik gora	96 €	12 €

Kiroldegiko eguneko sarrerak:


TALDEA	ADINA	EGUNEKO SARREA
Haurrak	0-15 urte	2,5 €
Gazteak	16-24 urte	3 €
Helduak	24-64 urte	5 €
Adinekoak	65tik gora	3 €

Kantxaren alokairua:

TALDEA	TARIFAK ORDUKO		BALDINTZAK
Haurrak	Haurrak	Besteak	-Pertsona edo talde bakoitzak gutxienez ordu beteko eta gehienez egun bateko erreserba egin ahal izango dute, erreserbaturiko ordu bakoitza dagokion presioan ordainduz. -Lehentasuna talde federatuek eta herritarrek izango dute.
Abonatuak	5€	14€	
Ez abonatuak	10€	22€	



Euskal Jaia



XVII. Euskal Jai arrakastatsu eta gogoangarria ospatu zen Anoetan



Urriaren 12 eta 13ko asteburuan ospatu zen XVII. Euskal Jaia Anoetan. Aurtengo edizioa arrakastatsua eta gogoangarria izan da, herritarren konpromisoa, parte hartzea, eta lanari esker.



Auzolana eta festa uztartuz, lehen lerroan jarri dira berriro Euskal Jaiaren baloreak; batetik, euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza eta bestetik, lehen sektorea, bertako produktuak eta ekoizleen lana.

Zaila da guztiak zerrendatzea, baina ezin dira aipatu gabe utzi Euskal Jai Batzordea, herriko eragileen elkarlana, Anoetako talogileak eta beren ekarpena egin duten beste hainbat eta hainbat herritar.

Denon artean egiten da Anoeta bizia!



Telegram

Telegrameko aplikazioan itzulpen automatikoa aktibatzeko aukera dago. Anoetako Udala jakitun da herrian dagoen aniztasunaz eta kulturartekotasunaz, horregatik, herritarrei informatu eta eskura jarri nahi dizkie aplikazio honek ematen dituen abantailak.

Jasotako mezu bati klik bat egitearekin itzultzeko aukera ematen du, hau da, gaztelaniazko, ingelesezko edo beste edozein erdaratan jasotako mezu bat iristean, klik bat egin, eta euskarazko itzulpena izango duzu irakurgai. Gauza bera egin daiteke hortaz, euskaraz helduko diren mezuekin. Klik bat egitearekin bakarrik, euskarazko mezua beste edozein hizkuntzatan izango da irakurgai.

Telegramaren erabilera azaltzeko, aplikazioan eman beharreko pausuak azalduko dira jarraian:

Telegramen itzulpen automatikoaren erabilera



- Mugikorreko "Play Store" aplikazioan Telegram deskargatu.

Descargar Telegram en la aplicación de móvil "Play Store".
- Goian ezkerrean agertzen diren hiru marratxo (-) eman.

Dar a los tres guiones (-) que aparecen arriba a la izquierda.
- Zure profila osatu. Izen deiturak jarri.

Completa tu perfil. Poner nombres y apellidos.
- Ezarpenetan hizkuntza aukera sakatu.

Pulsar la opción de idioma en los ajustes.
- Itzulpen aukera klikatu.

Haz clic en la opción de "Mostrar botón traducir".
- Hizkuntza aukeratu.

Elegir el idioma.

Ondoren, euskaraz jasotako mezu bat dugunean, klik bat egin eta bertan aukera desberdinak agertuko dira; emotikonoz erreakzionatzeko edo beste zerbait egiteko. Aukera horietan "itzuli", edo "traducir" aukera emango du. Hor klikatuta, mezua itzulita agertuko da.

Gizarte zerbitzuak

Anoetako eta Irurako udalen artean gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua martxan jartzeko akordioa sinatu da

Anoeta eta Irurako Gizarte Zerbitzuetatik herritarren beharrak ere aldatzen doazela begiztatu da. Hau da, herritarren arazoak, ondoezak edo eta zailtasunak anitzak eta mota askotarikoak dira eta komunitate mailan herritar orori laguntzeko programa berri baten beharra dagoela ikusi da.

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua udal eskumeneko ezinbesteko zerbitzua da Udaletako Gizarte Zerbitzuetan. Ondorioz, Anoeta eta Irurako Gizarte Zerbitzuak indartze aldera urrian bi udalerrien artean zerbitzua martxan jartzeko akordioa sinatu zen.

Lan taldearen osaketa

Arlo sozio-hezitzailea eta psikosozialean eskuhartzeko zerbitzua aurrera emateko lau kidek osatzen dute taldea: bi kale hezitzaile, psikologo bat eta koordinatzaile bat.

Zerbitzuaren helburu nagusia, zailtasunak, oztupoak edo krisi-uneak gainditu ahal izateko esku-hartzea behar duten pertsonen eta taldeen behar sozialei erantzutea da. Horretarako, herriko gainerako sistema, agente eta baliabideekin elkarlanean jardungo dute.

Abian jarri berri den ekimena denez, taldea kokatzen ari da. Momentuz, herria ezagutzen ari da

eta beharren lehenengo diagnostiko sakonagoari ekin diote. Lehenengo fase honetan komunitateko eragile desberdinekin harremanetan jarriko dira; alde batetik, zerbitzuaren aurkezpena egiteko eta, beste aldetik, eragile bakoitzak identifikatzen dituen beharrak jasotzeko. Fase honen helburua bi herrien behar sozialen diagnostikoa egitea eta horiei egokitutako lan-proposamen zehatza egitea da. Fase hau 2025eko urtarrilean zehar amaituta egotea aurreikusten da eta, une horretatik aurrera, banakako, taldeko edo/eta komunitateko esku-hartzeak martxan jarriko dira, helburu nagusi batean oinarrituta: onuradunen autonomia indartzea eta gizartearen txertatzeko nahiz familian eta komunitatean elkarbizitza egokia lortzeko gaitasun pertsonalak hartu eta garatzea.

Egunerokotasunean, helburuak bi modutara landuko dira:

- Zuzeneko arreta: pertsonekin, familiekin eta taldeekin elkartuz, adibidez: nerabe-taldeekin, familiekin edo helduekin saioak eginez.
- Zeharkako arreta: gainerako eragileekin eta zerbitzu-sistekin koordinatuz/elkartuz., Adibidez, ikastolekin, aisialdiko zerbitzuekin, udal-teknikariekin...

Era berean, prebentzioa sustatzeko lana egingo da, komunitateko eragile guztien artean elkarlanaren balioan jarritz, pertsonen eta taldeen zailtasun sozialak gainditzea guztion erantzunkizuna baita.

Herriko eragileak



IRAKIN
Obradoreko
Miriam
Campos
eta Iñigo
Estanga.
ELKARRIZKETA.

Irakin proiektua 2021 amaieran, 2022 hasierarekin hasi zenuten. 2025.urtera sartzera goaz. Proiektuaren balorazio orokor bat egin, mesedez.

Sortu ginenetik beti izan dugu gogoa zerbait egiteko. Ostalaritzatik gatoz eta ez genuen ostalaritza klasikoan jarraitu nahi. Duela 8 urte etorri ginen Anoetara eta ikusi genuen haur mordoa zegoela. Ordutik hurrekin lanean hasi ginen Udalarekin batera lantegiak antolatzen. Pandemia etorri zen eta etxetik aritu ginen lanean proiektuari buelta bat eman nahian eta eboluzionatzen joan da guztia. Era batera

hasi ginen, baina, gero, herritarrekin eta jendearekin eraldatzen joan da proiektua. Oso polita da moldatzeko daukagun gaitasuna.

Laborategi gisara irudikatu zenuten proiektua. Elikagaiak bildu, eraldatu, ekoizleen produktuak saldu... Ideia horretatik gertu ibili zarete?

Bai, era batera edo bestera guztiak ari gara betetzen. Ate asko ditugu zabalik eta gure burua definitzen joan behar gara. Salmenta puntua badaukagu eta bertako ekoizle txikien produktuak jartzen ditugu. Ez gaude herriko saltokigune zentroan orduan,

ona erostera gerturatzea zailagoa da. Esan bezala, ate asko ditugu eta denera ezin garenez iritsi, eraldaketa prozesu batean gaudela esango genuke, hurrekin lan pila bat egiten dugu lantegiekin eta etortzen diren guztiak oso gustura geratzen dira, elkartzeko puntu bat da. Anoetan gaude, Anoetan bizi gara eta bertako jendearekin egin nahi dugu lana, helduekin, hurrekin, herriko jaietan lantegiak egiten...

Osasuna, elikadura, ditugun kezka horiek guztiak lantzen ari gara, denda bat izateaz haratago.



Laborategiak eta tailerrak ematen dituzue. Nolakoa da parte-hartzea? Zenek izan du arrakasta handiena?

Formakuntza eskaintzea oso aberasgarria da. Ildo horretatik gainera, ez dugu hainbesteko kompetentziarik. Aurretik aipatu bezala, hurrekin lan asko egiten dugu baina hurrek, ondoren, etxera eramaten dute ekarpen hori. Lantegia etxean amaitzen da. Azkenean, hurrek gurasoei erakusten diete hemen ikasitakoa eta guretzat hori da garrantzitsua. Gurasoen artean haurren ikastaroek dute arrakasta gehien. Iaz, adibidez, familia

ikastaro bat eskaini genuen eta arrakasta handia izan zuen. Askotan, haurrak alde batetik joaten dira eta gurasoak bestetik, eta ikastaroan harremana sortzea elikagaien erdian polita izan zen. Euskal jaietan 70 hurrek parte hartu zuten 2 ordu eta erdian eta Gabonetako lantegian ere haur askok parte hartzen dute.

Aurrera begira lantegirik baduzue eskuarteetan?

6 talde ditugu eskolaz kanpoko lantegiak egiteko. Talde bakoitzak 11 lantegi egingo ditu ekainera bitarte. Aurrera begira, helduekin, jubilatuekin diziplina desberdinak lantzeko lantegiak egitea. Horrez gain, astean behin Irurara joaten gara eta herriko elkartera hilabetea behin. Arlo horretan asko mugitzen gara.

Zer da gehien kosta zaizuen urte hauetan? edo zailtasun gehien eman dizuen?

Exijentzia eta konstantzia asko eskatzen dizu Irakin proiektuak. Gure buruarentzat ari gara lanean eta ez dago erraztasun askorik. Jendearengana iristea da gehien kostatzen zaiguna; horrelako herri txiki batean, gure proiektua ezagutaraztea, gure helburuen berri ematea eta gure identitatea ulertzera eramatera. Jendea guregana gerturatzea ere espero dugu eta galderak egitea, baina hori ez da horrela, gu iritsi behar dugu

haiengana. Herritarrek beraien dinamika eta ohiturak dituzte eta batzuetan hona erakartzea zaila egiten da.

Ekoizleekin zer nolako harreman mota duzue?

Hemengo ekoizleekin oso harreman ona daukagu. Herriko edo gertuko ekoizle gehiagorekin lan egitea gustatuko litzaiguke baina horrek ere bera lanketa eskatzen du. Hemengo ekoizleak gu bezalakoak dira, proiektu oso pertsonala daukate martxan eta enpatia dago gure artean. Esnea edo barazkiak ekartzen dizkigutenean urrea balira bezala sentitzen dugu.

Mezutxo bat Anoetarrei:

Iñigo: Gu ez gara hemengoak eta eskerrak eman nahi nizkieke. Agian batzuk pentsatuko dute eremu publiko batean gaudelako oparitutako proiektua bat dela baina honen atzean lan handia dago, inbertsio handia. Miriam: Etortzeko, eta ezagutzeko. Duela 16 urte ezagutu ginen Kaskazurin eta hortik etorri da dena, istorio bat daukagu eta niretzat oso polita da. Hemen, Anoetan, beste bi haur edukitzea erabaki dugu eta guretzat ere apustua izan da hona etorri eta zerotik hastea. Batzuentzat fabrikatik atera eta orduan hasiko da euren bizia, gurea Irakin da, guztia da bat, hori gara gu.

Herriko eragileak



Azaroaren 25aren harira, Matraka Talde Feministari elkarrizketa

Eskualdean indarkeria kasu asko eman dira urte honetan. Tolosan hainbat eta hainbat kasu, Aduna prostituzio etxearen kasua... Nola bizi izan duzue egoera hori?

Sentipen eta emozio ezberdinak bizitzen ditugu indarkeria matxista kasuen berri izaten dugun aldiro. Inpotentzia, izan ere, gure egunerokotasunean bizitza normaltasunez bizitzen saiatzen gara, sinetsarazi baitigute jendartean aukera berdinak ditugula, baita gure eskubideak berdinak direla



ere. Baina ez. Beti erasoren bat gertatzen da alertan bizi behar dugula gogoraziko diguna. Gure atzean etengabe itzal ilun handi bat gertu dugula gogoraziko diguna. Haserre sentitu dugu, eta antolatu eta eraso hauei guztiei erantzuteko beharra sentitu dugu. Eta kontziente gara hau emakume* izateagatik gertatzen zaigula. Irudikatzen dugu (sortu diguten imajinarioaren ondorioz) horrelako gauzak beti urruti gertatzen direla, parrandatik



bueltan, gauez, eta erasotzaileak ezezagunak, kanpokoak... direla. Baina ez, hemen gertatzen dira: Anoetan, Tolosan, Iruran, Amasa-Villabonan, Zizurkilen... eta ezagunengandik, gertukoengandik, edozein egunetan eta momentutan. Antolatuta egon behar dugu eta erasoen aurrean erantzutea dagokigu denoi. Emakume* gisa ahalduntzen jarraitu behar dugu, eta gizonek konplize izateari utzi behar diote inguruan ikusten dituzten jarrera matxistak salatuz, gure arteko arrakala gehiago handitu ez dadin.

Zein gai duzue eskuartean Anoetan?

Irailean udalarekin batera urteko programazio bat adostu genuen: ahalduntze lantegiak, irakurketa feministak, antzerkiak, pelikulak, hilean behin emakumeak biltzeko gauza ezberdinak... Hauek antolatzen lagundu eta parte hartuko dugu. Horrez gain, mugimendu feministarentzat garrantzitsuak diren egunetan ekintzak antolatzen ditugu: azaroaren

25a, azaroaren 30a (iazko greba feministatik urtebete igaro da), martxoaren 8a, ekainaren 28a... Udalarekin eta beste hainbat eragile eta elkarterekin batera Adi eta So! Batzordean parte hartzen dugu, baita herriko eraso matxisten aurkako protokoloan eta festetako eraso matxisten aurkako protokoloan ere. Eskualdeko talde feminista ezberdinekin antolatuta ere bagaude ekimen ezberdinak martxan jartzeko. Besteak beste "nik sinisten dizut, guk sinisten dizuegu".

2025ari begira zein helburu dituzue?

2025ari begira, herriko emakumeak biltzen, ahalduntzen eta antolatzen jarraitzea da gure xedea. Hilean behin udalarekin batera antolatutako ekintzetan parte hartzen, eta herrian antolatzen diren ekimenetan (Euskal Jaia, herriko festak...) ikuspegi feminista txertatzen jarraituko dugu. Erasoen aurrean herri gisa erantzuna antolatzea eta ematea ere bada gure asmoa.

Albiste laburrak



Harrera saioa egin zen udaletxean, Anoetara bizitzera etorri berri direnentzat. Herriko eta eskualdeko informazio interesgarria emateaz gain, aurrez aurre elkar ezagutzeko aukera paregabea ematen dute horrelako saioek. Urtean bitan egiten dira, maiatzean eta azaroan.



Herriko plazako parkea konpondu eta Iturtxulo auzoko parkeari zoru berria jarri zaio erabilera handiagatik egoera txarrean bait zeuden. Herriko azpiegiturak txukuntzen, konpontzen eta berritzen jarraituko du Anoetako Udalak.

Udalak 2 desfibriladore jarri ditu, bihotzekoen kasuan lehen sorospenak emateko. Anbulantzia iritsi bitarteko, lehen 10 minutuak oso garrantzitsuak dira pertsona bizirik mantentzeko (urrezko 10 minuak deitzen zaizkie). Desfibriladore bat kiroldegian jarri da eta bestea Alkartasuna jubilatuen egoitzan. Irailean, 3 orduko formazio ikastaroa eman zen nola erabili ikasteko.



Egoitz Luisa alkateak Saharako errefuxiatu kanpamenduetara egindako bisitaren harira, Dahla wilayako **Yreifia dairarekin senidetu da** Anoetako herria.



“Jasangarritasunaren txokoa” sortu da ikastola eta kiroldegi tartean, ekonomia zirkularraren aldeko kontzientziakzioa, sentsibilizazioa eta ahalduntzea bultzatzeko. Udala eta Anoetako Herri Ikastola elkarlanean aritu dira; ikasleek plastikozko tapoiak bildu eta lortu ahala, Udalak ikastolako eremuko eserleku zaharkituak plastikozko tapoi birziklatuz eginiko eserlekuz ordezkatuko ditu.

2024 urteko jaiotza eta heriotza tasak:

Biztanleak	1033	1097	2130
Jaiotzak	Rawan. Ainara. Izaro. Nur. Fatma. Izadi. Ibtissan.	Erik. Hodei. Miguel Angel. Eñaut. Mateo. Endegsaad. Pettan. Danel.	
Heriotzak	Clementina. M ^a Mercedes. M ^a Dolores. Victoria. Guadalupe. Magdalena. Victoria.	Jose M ^a . Francisco. Enrique. Germán. Jose Ignacio.	

